

3. FUNTSEZKO SOZIETATEAK

Gure enpresak behar dituen bazkide eta hornitzaile nagusiak, durangoko taberna ezberdinak eta makina salduko digun enpresa izango dira. Garrantzitsuak izango dira, azken finean, guri janariz horintuko digutelako eta salmenta (makinaren bitartez) ahalbidetuko digutelako.

Tabernek, produktua hornitzen digute eta enpresako kideok janari hori makina ezberdinetara eraman eta hauek betetzeaz arduratuko gara beste funtzio batzuen artean.

Enpresaren parte eta bazkide bezala 4 izango gara; Lander, Paul, Unai eta Eñaut Taldekide bakoitzak betebeharrak espezifikokoak izango ditu gure enpresa barruan; adibidez, Unai enpresaren janaria garraiatzen eta antolatzen arituko da; Landerrek, kanpoko enprekin kontaktuak mantenduko ditu eta baita tabernekin (haien produktuen salmenta eta erosketak eztabaidatzeko), Paul alderdi ekonomikoaz arduratuko da; kontabilitatea eta enpresaren ekonomia. Azkenik, Eñaut, enpresaren I+D alorrean zentratuko da, gure enpresaak izan ahalko dituen hobekuntza eta inbertsioetatik arduratuko da.

Merkatuan denbora bat egon ostean beste makina batzuk jartzea gustatuko litzaiguke eta ez durangoko auzo ezberdinetan ipintzea alboko herrietan makinak ipintzea gustatuko litzaiguke eta jende gehiagori heltzea.

